

Lokalak ixteko ordua ordu erdi luzatzea ez da nahikoa EAEko ostalarien ustez

Urriko hauteskundeak egin baino lehenago aterabideak eskatzen dituzte

Eusko Jaurlaritzak lokalak ixteko ordua ordu erdi luzatu du kaleratu duen azken dekretuan, baina «ez da nahikoa» EAEko Ostalarien Elkartearen ustez. Elkar-
 tea alderdi politikoekin bilduko da beren hauteskunde programetan ostalaritza sektorearen arazoa kontuan har dezaten.

Gorane Agirre / Bilbo

EUSKO JAURLARITZAK kaleratu duen ostalaritza sektorearen ordutegi dekretu berriak 30 minutu luzatzen du orain arteko ixteko ordua. Ordu erdiko tarte horretan lokal barruan dauden bezeroak bakarrik atentitu ahal izango dituzte. Araudi hori Gasteizko Gobernuak iazko abenduan, ostalarien protesten artean, onartu zuen dekretuaren osagarria da.

Ordu erdiko luzapen horretan lokalak itxiak egon beharko dute eta ezingo da bezero gehiagori sartu. Hala ere, barruan dauden bezeroak atentitu ahal izango dituzte. Dena dela, auzokideentzat kaltegarriak izan daitezkeen jarduerak — musika, ikuskizunak edo joko-makinak — kendu edo amaitu egin beharko dituzte. Denbora hori bukatzen denean, garbiketa eta bilketa lanez arduratzen diren langileak baino ezin izango dute egon establezimendu barruan.

Gobernuaren araudi berria aurrekoaren alderatuz gero «hobekuntza nabarmena» bada ere, beren aldarrikapenak ez dituela erabat betetzen zehaztu zuten EAEko Ostalaritza Elkarteak arduradunek atzo.

Ostalaritza establezimenduen ordutegia murrizten zuen iazko dekretu eztabaidatuaren ostean, ostalariek ordutegia, gutxienez, ordu erdi luzatzea eta aldi berean, «ordutegi berezia» asteko besate egun batera zabaltzeko eskatu zuten. Lehenengo eskaria bezero-



Gazte koadrila bat, Zarauzko taberna batean eserita.

OLALDE

ak «kanporatzeko denbora» bezala aurrekusi du dekretu berriak, baina bigarren, oster, ez du aintzat hartu.

«EAEko Ostalarien Elkarteak egindako eskariak Eusko Jaurlaritzak bere osotasunean kontuan hartu ez izanak ezinezkoa egiten du testu legal berriari gure erabateko adostasuna ematea», zehaztu zuten Elkarteak. «Araudi berriak hobekuntza nabarmena dakarren arren, ez da nahikoa eta ez da ostalaritza sektorearekin hitzartu».

Horregatik, datorren urrian egingo diren hauteskundeak baino lehen Elkarte alderdi politikoekin bilduko da, hauteskunde programetan ostalaritzaren inguruan duten jarrera jasotzeko eta zehaztu dezaten.

Zenbait politikariren jarrera salatu dute ostalariek • Ostalaritzako zenbait enpresari ezartzen den

edozein ordutegiren aurka egongo dela esan zuten Elkarteak ordezkariek. Hala ere, gaitzetsi zuten, «badira instituzioetako ordezkariek jarrera bidegabe eta setatiarekin kontrako asmoak lortu nahi dituztenak ere».

Iturri berberen arabera, «zenbait ordezkariek politikok enplegua eta aberastasuna sortzen duen jardueraren ekonomiko baten jardun askea galarazi nahi dute. Aldi berean, aisialdiari nahi duten bezala gozatzeko herritarrek duten askatasuna mugatu nahi dute».

Orain arteko eskariei eutsiz, ostalaritza sektoreko jardueraren ordutegien auzia zarata edo gizalegezkoak ez diren jokabideak sortzen dituzten arazoekin ez nahasteko eskatu zieten administrazioei Ostalarien Elkarteak kideek.

Ildo beretik, «ostalaritza jardueraren sailkatze oker edo dese-

gokia ezin da lotu ordutegiaren arazoarekin. Sektoreko enpresari zehatz batzuek, era guztiz irregularrean, bere Jardueraren Udala Baimenak aurrekusten ez dituen jardueraren eta ordutegi baten barruan aritzeak ez du zerikusirik ixteko orduarekin», gehitu zuten. Beren ustez, jokatze irregular horien erantzule zuzenak dira «baimentzen dituzten udal instituzioak, baimen desegokiak onartu edo ostalaritzako izendegi konplexua ezagutzen ez dituzten proiektista teknikoak, eta akatsaz jabetzen ez diren ostalariek».

Ostalaritza establezimendu jakin batzuen egoera irregularrak ezin diola «sektore guztiari» kalte egin azpimarratu zuten ostalarien ordezkariek. Ildo horretan, ostalaritzako jarduerak sailkatzeko Eudel erakundea gaur egun egiten ari den esfortzua nabarmendu zuten. X

Bilboko udaltzainek droga trafikatzailer talde bateko hiru kide atxilotu dituzte

■ *Atxilotetan udaltzain bat zauritu zen, saihetsezurretan eta esku baten*

Erredakzioa / Bilbo

BILBOKO udaltzainek Ginea Bissauko hiru pertsona atxilotu zituzten joan den astelehenean, San Frantzisko kalean droga banatu eta saltzeaz akusatuta.

Droga unitateko udaltzainek igarotako astean atzeman zuten kokaina heldu zela Bilboko ostatu batera — dirudienez, oso kalitate onekoa —. Baldes izeneko talde bateko ginear batzuk droga hori saltzen hasiak ziren jadanik. Udaltzainek talde horretako hiru kide garrantzitsuenak zaintzen hasi ziren, eta joan den astelehenean 38 urteko J.B. atxilotu zuten, Erribera kalean droga saltzen ari zela. Atxiloteta horretan udaltzain bat zauritu zen, saihetsezurrak makatu eta ezkerreko besoa hautsi zuten, Udaltzaingoko iturriek azaldu dutenez.

Udaltzainak trafikatzailerak bizi ziren ostatura joan ziren, eta kide baten atxilotetaren berri jakitean ihes egitera zihoazen 32 urteko S.B. taldeko burua eta 38 urteko U.B., baina atxilotu egin zituzten. Bi atxilotuei zermatzaten guztia hartu zieten: S.B.ri 50 gramoko hamar poltsa heroína, sakelako bi telefono eta dirua; U.B.ri 16 heroína bola eta sakelako telefono bat.

Atxilotuen gelak miatu ondoren hurrengo materiala aurkitu zuten udaltzainek eta batzorde judicialak: 230 heroína eta kokaina bola, egun horretan saltzeko prest; bost gramoko 50 poltsa kokaina; droga manipulatzeko tresnak; bi milioi pezeta inguru (80.000 libera inguru), pezetatan eta liberatan; eta sakelako telefono eta kontabilitate paper batzuk. Gela hartan droga prestatzen ari ziren Gipuzkoako kostaldeko trafikatzailer bati entregatzeko. X

Ega ibaiko arrainak ur biltegi bat garbitzen erabilitako purinak hil zituela uste du Nafarroako Gobernuak

■ *Inguruko lantegiek arautegia errespetatzen dutela esan du Jose Torres Ingurugiro sailburuak*

Europa Press / Iruñea

ATZO ziren erretiratzekoak Ega ibaiaren ureztatze kanal batean iragan asteburuan hilik agertu ziren arrainak. San Adrian herriaren parean 5.000 barbo hilik agertu ziren, eta, Gurelur elkarteko kideek asteburuan arrain batzuk erretiratu zituzten arren, atzo arrain guztiak erretiratzeko lanetan jardun zuten Nafarroako Gobernu Ingurugiro Sailak.

Hildako arrainak erretiratzeko

lanak nahikoa nekezak izan ziren, ibaiaren alboetako landaretza anitza baita. Hala ere, eguerdirako 2.000 barbo baino gehiago erretiratu zituzten zeregin horretan aritu ziren bost lagunek.

Nafarroako Gobernu Ingurugiro Saila ari da, Natura Babesteko Zerbitzuarekin batera (Seprona), ibai garbitzen eta gertaeraren inguruko ikerketak egiten.

Nafarroako instituzioek egindako lehen ikerketen arabera, bali-

teke ur biltegi bat garbitzen erabilitako purina izatea ez behar-
 ren eragilea. Izan ere, Ega ibaiaren aipatu ureztatze kanaletik ura hartu edota bertara ura botatzen duten lantegi guztiek araudia betetzen dute.

Nafarrako Ingurugiro sailburu Jose Torresek adierazi duenez, ikerketa egin eta gero jakin dute lantegi horiek beren jarduerarako bete beharreko araudia osorik betetzen dutela. Era berean, Ega ibaiko ura egoera arruntean dagoela, eta, inguru horretako

arrainak bizirik daudela gaineratu zuten sailburuak.

Zortzigarren kutsadura kasua • IU alderdiko parlamentario Ion Errok Nafarroako Gobernuari atzo galdetu zion ea zer neurri hartu zituen ezbeharrak konpontzeko.

Era berean, aurten Nafarroako ibaietan gertatu den zortzigarren kutsadura kasua dela gogorazi, eta, kutsadura gehiago ez gertatzeko neurriak hartzeko eskatu zion Nafarroako Gobernuari. X

Garesko Udala

Euskararen sustapenerako udal teknikari bat, oposizio-lehiaketa bidez eta aldi baterako hartzeko deialdia.

1998ko uztailaren 22an egindako osoko bilkuran Garesko Udalak euskararen sustapenerako teknikaria, amatasunbajak irauten duen bitartean, ordezkatzeko deialdiaren oinarriak onartu zuten.

Aukeratzeko-prozesuan parte hartzeko eskabideak udaletxeko bulegoan abuztuaren 21 arte aurkeztu beharko dira (11etatik 13etara). Bertan deialdiaren oinarriak eskuratu ahaliko dira.

Garesen, 1998ko uztailaren 24ean. Fco. Javier Vélez Medrano alkatea.